



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2010-09-12

VIII. URTEA 2.072. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

UNAI AROZENA PILOTARIA

«Eguna Caracaseko Euskal Etxeko pilotalekuan ematen genuen»

TOLOSA Tolosan bizi den venezuelarra Munduko Euskal Pilota Txapelketan ariko da bere herrialdea ordezkatzen

HELBURUA Finalurrekoak jokatu ahal izateko lehen lauen artean sartu behar du eta horixe da bere xedea 24



MAIER UGARTEMENDIA



Jende asko bildu zen plazan ekitaldi nagusia ikusteko. I. TERRADILLOS

Euskal dantzak izan dira nagusi herriko kaleetan

LEITZA 24 urte eta gero atzokoan itzuli zen Nafarroako Euskal Dantzarien Eguna herrira 4

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**
bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Lanbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidalai izen-emata orria:
Araba etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31860 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

| | |
|-----------------------|----------------------|
| • Izen-abizenak: | • N. A.: |
| • Lanbidea: | • Jaioteguna: |
| • Helbidea: | • Herria: |
| • P.K.: | • Tel.: |
| • Posta elektronikoa: | |
| • Kontu zenbakia: | <input type="text"/> |

TARTALO DENDA **IREKITA**
Eskeintzak!!

Iraila / urria 2010

Osteguna ostirala larunbata


| | | |
|----|----|----|
| 16 | 17 | 18 |
| 23 | 24 | 25 |
| 30 | 1 | 2 |
| 7 | 8 | 9 |



Plaza zaharra, 10. Tolosa



Aberriaren 1. leku 15/1999 Lege Organiko, Datu Pertsonalak Babesteko, betetik, jakinarazten ditugu zure datu pertsonalak TOLOSALA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-ren fitxategi automatizatu batera pasatuko direla, erpresak dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezaztatzeko eta kontratu egiteko eskubideak erabiltzeko. Hala ere, gure helburuak dira: TOLOSALA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-Araba etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa, edo harpidetza ghitza.litza

K Komikia**Gorka Salaberria**

Ez erosi sarrerarik

**» Uzturretik****Eneritz Otamendi**

Hasi zaigu kurtsoberria, motxila beteaz bizkarrean dugula.

Halako zama bat sentitu nuen nik behintzat, joan den igandean, emakume ahotsez. Komunikabide gehienetan kontrakoa irudikatzen saiatu diren arren gure teitlatuan dago harria orain, gutako bakoitzaren teitlatu iletu edo distiratsuaren gainean. Zinemaldia hasiera doala dirudi baina ez erosi sarrerarik, errealitateak fikzioa gainditzen du beti eta aktoreak behar ditugu, ez espektadoreak.

Ardura politikoa oportetan ahaztuz aiez gure herriaren «ordez-

kari legalei» edo beldur eszenikoak jan die bestela. Hala ere erabaki sendoa hartua dut, ez nauela Patxi Lopez, Iñigo Urkullu, Zapatero, Ares, Diario Asco, ETV, Fatxagotiti... eta farandula politikoko pertsonai horien iritzirik publikoak emozionalki baldintzatuko. Eta iritzirik publikoak diot, ez delako benetan duten iritzirik bozgorailuetatik zabaltzen dutena. Euren etxeko komunean imajinatzen dituzterdi zuria kopetan eta paper mordoak eskuetan, horixe sartzen baitzaie

herri hau abian jartzen den bakoitzean, kakalarria. Bata Espainiako iritzirik publikoari begira diskurtsoa eginez, PPri ahalik eta karta gutxien utzi asmoz jokorako; bestea eskutik hartu duen maitaleari fideltasuna gorde asmoz galtzak jaitzita, denak jendartearen ilusioa apaltzeko intentziotan, denak jendea zinerako sarrerak erosi eta etxean gelditu dadin helburu hartuta. Orain ere alperrik ordea! Hasieran esan dut motxila beteaz dugula, etxeko lanez beteaz. Hizkuntzaren terminologian lan asko egin behar dugu ziririk sar ez diezaguten, demokrazia eta pakean oinarritutako prozesu demokratikoak, hiru

hitz horien esanahia defendatzeko kurtsoa dugu. Giza eskubideen oinarritik hasi eta eskubide politiko eta zibilak eskuratu arte aprobaturik ez emateko kurtsoa. Mitchell senatoriaren printzipioak zeintzuk diren ikasi eta geure egin, eta betearazteko kurtsoa. Eta batez ere asistentzia derrigorrezkoa denez, klasera joateko kurtsoa. Euskaldunok erronkazaleak izan gara beti, orain ikasle onak garelako demostartzeko garaia dugu. Gure herriarentzat proiektu ezberdinak izan ditzakegu baina komunean dugun helburua lehentasun bezala jarrita eraman dezagun lehenik askatasuneraino, gero gerokoak!

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitz.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Gutunak

Gazteluko errealitatea: Itturraundi taldeak gazteluaren eskubideak urratzen jarraitzen du

Esan ohi dugu etxeko kontuak etxean konpondu behar direla, orain arte horrela egin dugu. Gazteluko arazoak gazteluaren artean konpondu beharko genituzke eta inork ez du gustuko bere herriaren izena albiste txarrekin nahastea.

Gazteluko Herritarrak taldeak (Udaletxearen oposizioan) orain arte zabaldu ditugun idatzizkoak gazteluaren herriaren egoeraz informatzeko izan dira eta herrian bertan zabaldu ditugu.

Uztailaren 25ean ordea, Patxi Iturriaga Gazteluko Alkatearen izenean HITZAN azaldutako idatziazko pentsarazi digu HITZAREN irakurleek eskubidea dutela Osingoingo etxebizitzak zein moduan egin diren eta herriaren egoera zein den jakiteko. HITZAREN oinarriak pasatzen diren, hemen duzue:

-Osingoingo etxebizitzak

Badira zazpi urte Itturraundi taldea Gazteluko udaletxera iritsi zenetik. Aurreko legegaldian (2003-2007) Patxi Navas Alkateak mar txan jarri zuen Osingoingo eraikinararen birmoldaketa sei etxebizitzak tasatu egiteko herriko gazteen beharrak bete nahian.

Proiektua onartu, eskaintza publikoa eta adjudikazioak egin zituen. Herriko 5 gazte eta kanpoko bat izan ziren adjudikatarioak eta bakoitzak bere abala jarri behar izan zuen.

2007an, legealdi berriarekin, Patxi Iturriaga jarri zen Alkate eta hauteskundeetarako zabaldu zituen bere asmoen artean garrantzitsuena, Gazteluko gazteentzako etxebizitzak egitea zen.

Ba, hain zuzen ere kontrakoa egiten hasi zen. Ia bi urtez Osingoingo proiektua erabat gelditu egin zen. Egoera horren aurrean, udaletxearen aldetik informazioa ukatzen zitzaizenez eta Alkatearen inolako azalpenik ez zutenenez, Osingoingo etxeen adjudikatarioak abokatu bat hartu behar izan zuten. Baina alferrik, ez zuten ezer lortu eta azkenean Udalaren presioaren ondorioz etxebizitzak hauei uko egin zieten 2008an. Herriko gazte hauek etxetik kendu

bezain azkar, proiektua berriz ere martxan jarri zuen Itturraundik. Jende bila hasi zen eta horretarako proiektu honentzako zeuden arauak behin eta berriz aldatu ditu, ia-ia edozein izan dadin Gazteluko etxe tasatuetan izena emateko egokia (Baldintza: Azkeneko 10 urtetan Tolosaldeko edozein herrian urte bete erroldatuta egotea).

Urte eta erdi bila ibili eta gero, osatu? zituen 6 hautagai berri eta etxebizitzak berriz ere adjudikatu zituen. Ez da posible izan jakitea hautagai hauek eskatutako baldintzak betetzen dituzten. Berriz ere, legearen kontra, Patxi Iturriaga Alkateak oposizioan gauden zinegotziei ukatu egin digu informazio hau eta honekin batera alegazioak aurkezteko, edo ez aurkezteko eskubidea.

Hori bai, dirudienez, etxebizitza hauek erosi dituzten pertsona hauek oso gustukoak ditu, izan ere, adjudikazioa egin eta gero, berriz ere, arauak aldatu baititu, etxebizitza tasatu hauek hemendik urte batzuetara prezio librean saltzeko aukera emanaz.

Hau legez kontrakoa da. Berez, etxebizitza tasatu bat betirako babestuta dago eta bereprezioa KPIaren (IPC)igoeraren arabera bakarrik igo daiteke. Neurri honek etxebizitzak espekulaziotik babesten ditu, baina Gaztelun ez. Gainera arau hau adjudikazioak egin ondoren aldatzeko, ustelkeria susmoa sortzen du.

Bai Gipuzkoako Foru Aldundiak eta bai Gazteluko Herritarrak taldeak behin baina gehiagotan adierazi diegu Itturraundiko Alkate eta zinegotziei neurri hau ilegala dela baina bostaxolaz. Badakite jeltzista oso mantsoa dela eta horri eusten diote bere ilegaltasunekin jarraitzeko.

Laburbilduta: Itturraundik arauak aldatu ditu herriko gazteak etxebizitzarik gabe utzi ondoren eta kanpoko bere lagunak eskura jartzen ditu Gazteluko herriaren ondasunarekin espekulatzeko aukera. Guzti hau agerian dagoena bakarrik da. Informazio falta, irregulartasunak eta ilegaltasunak eguneroko kanta dira Gazteluko udaletxean.

-Ekintzak herriaren gainetik

Azken hiru urte hauetan, Patxi



Osingoingo etxebizitzak. HITZA

Iturriaga Alkate denetik, beste ekintza hauek burutu ditu:

- Denbora epe horretan hamahiru Ohiko Udalbatza egin beharko zirenean, 4 bakarrik ospatu dira.

- Herrian zegoen enpresa bakarra, bost emakumeei lana ematen ziena, arazoirik gabe herriatik bidali du.

- Herriko Elkarte itxi egin zuen elkarte pribatu bati emateko baina atearen oraindik ere, Herriko Elkarte dela jartzen duen kartela mantentzen du.

- Herriko gazte etxebizitzarik gabe utzi ditu.

- 2007 eta 2008ko kontuak argitu gabeko irregulartasunaz josita daude.

- 2009ko kontuak ez daude eta 2010eko aurrekontua inork ez du ikusi. Eta hala ere kontrolak gabe gastuak egiten jarraitzen du.

- Informazioa ukatzen dio bai oposizioari eta bai herriari.

-Idazkariari presioa

Gazteluko idazkaria bajaran dago 2009ko irailetik eta Patxi Iturriagaren hitzetan bere lanpostuan jasan dituen presioengatik dago gaitorik. Bai, hori sinesten dugu, badakigu zer gertatzen zaion. Nork presionatzen du idazkaria irregulartasunaz jokatzeko? Oposizioari legezkoa den informazioa ukatzeko? Nondik sortu diren ez dakien fakturak ordaintzeko? Norengandik jasotzen du presioa hauek danak egiteko? Udaletxearengandik? Gazteluko Herritarrak taldeak ahalik eta lasterren osatzea eta lanera itzultzea espero dugu.

-Oposizioaren lokala

Gazteluko Herritarrak taldeari, oposizioa garenez, lokal bat dago-kigu. Hiru urte pasa ditugu lokalik gabe eta orain udaletxean gela bat eskaini digute. Duela hiru urte atsegin handiz hartuko genuen.

Gaur egun ez.

Hiru urtetako irregulartasun eta ilegaltasunekin udaletxearen kaos ikaragarria dagoela uste dugu. Eta Murphyren Legeak dioen moduan: enpresa edo administrazioetan kaos puntu horretara iritsi ezkerro, sute eta lapurreta arriskua izugarri handitzen da gauzak konpontzeko modu bat bezala.

Berez, eta udaletxeko gauzak argitzen ez diren bitartean, arbolarren azpian edo elizako lehorpean biltzea nahiago dugu.

Gazteluko Herritarrak udal taldea. Gaztelu.

Espetxe politika gero eta gaiztoago

Joan den larunbaten, irailak 5, Soto del Real espetxera (Madrid) joan ginen bi lagun, Ana Belen Egues preso politiko elduaindara bisitatzeraz. Horretarako astebete lehenago espetxera deitu eta bertatik baimenduak ginela adierazi ziguten, baina, hara gure sorpresa iritsitakoan: izena ematera joanginean leihatilara, non esaten diguten gutariko baten izenik ez zela azaltzen zerrendan, are gehiago, ez zela sartuko bisitara.

Saiatu ginen funtzionarioei azaltzen baimena bagenuela, berriak telefonoz baieztatu zigutela egun batzuk lehenago eta behin baino gehiagotan bertan egonak ginela gure lagunarekin eta abar luze bat. Baina gure ahalegin guztiak alferrik izan ziren, azkenean lagun bakarra sartu zen lokutoriora eta besteak kanpoan geratu behar izan zuten. Mila kilometro egin ondoren, beste behin ere, laguna ikusi gabe itzuli behar izan zuten Euskal Herrira: ez dago eskubiderik!!! Oraingoan Madrildik gertatu zaigu, baino estatu espainiarreko eta estatu frantseseko espetxe guztietan, berdina gertatzeko arriskuan ere bagaude beti. Asteburuetan jasaten ditugun arrisku guztiak, errepedetan, galera ekonomikoak... Ez dira gutxi, baina guk argi daukagu, hala eta guztiz ere, ez ditugula gure lagun eta senide espetxeratu inoiz bakarrik eta bisitari gabe utziko.

Euskal Herriko altxor handi bat dago Espainiako espetxetean barreiatutik.

Maite zaituztegu!!!

Anaren bi lagun. Elduain.

Giro beroa ikasturte hasiberriaren lehen azokan

Azoka » Lehen errezil sagarrak ikusi ahal izan ziren mahaletan; mota desberdinetako udareak ere izan ziren salgai.

PABLO ALBERDI

Lasai hasi zen atzoko azoka eguna. Eguna aurrera zihoala ordea, giroa berotu egin zen goizarekin batera, eta azkenengo orduan aurpegi alaiak ikusi izan genituen mahaletan.

Barazki eskaintza oso munta onean dago, eta berrikuntzekin batera, udarako barazkiak zerrendaz nagusitzen dira oraindik. Babarrunak hasi dira dagoeneko, lekatan oraindik, baina tomate, piparra eta leka asko dago oraindik mahaletan, eta kalitate gorenekoak gainera.

Fruita zerrendari atzo, aurtengo lehenengo errezil sagarrak gehitu zitzaizkion. Hauxe gain, reineta sagarra, mota desberdinetako udareak, aranak, matxakanak, urrak eta intxaurrek izan ziren aukerak.

» ATZOKO AZOKA

| BERDURA PLAZA | Merka | Gares. |
|------------------|-------|--------|
| Landareak | | |
| Alegria | 1,50 | 2,00 |
| Geraneoa | 2,00 | - |
| Menta | 1,50 | 6,00 |
| Zilantroa | 1,50 | - |
| Zainzuria | 2,80 | - |
| Berbena | 3,00 | - |

BERTAKO PRODUKTUAK

| Perretxikoak | | |
|--------------|-------|-------|
| Onddoak | 25,00 | 26,00 |

| Fruita | | |
|-----------------|------|------|
| Kivia | 3,50 | - |
| Errezil sagarra | 2,00 | 4,00 |
| Urra | 2,00 | 3,00 |
| Intxaurrea | 2,50 | 4,00 |
| Udarea | 1,00 | - |

| Barazkiak (sorta) | | |
|-------------------|------|------|
| Ziaberba | 1,00 | - |
| Erremolatxa | 1,50 | 2,00 |
| Tipula | 0,80 | 1,00 |
| Azenarioa | 1,20 | 5,00 |
| Espinaka | 2,00 | - |
| Porrua | 1,50 | 3,00 |

| Barazkiak (kiloa) | | |
|--------------------|-------|-------|
| Babarrun zuria | 8,00 | - |
| Tomatea | 3,25 | 4,00 |
| Porruak | 1,00 | 4,00 |
| Tolosako babarruna | 10,00 | 12,00 |

2010ko USATEGIEEN ENKANTEA
BIRIGARRO ETA OSOA
ARESO (NAFARROA)
TEL 948510327-608928626

Donostiatik 20 minututara
Paradetaraino sarbidea kotxez
Enkantea Udaletxeiko Batzar Aretoa burutuko da.

1go enkantea: irailaren 18an, larunbata, 19:00 ordutan
2.enkantea: irailaren 25ean, larunbata, 19:00 ordutan



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Baseria edo borda.** Baserri edo borda bat alokatuko genuke. Interesatuek deitu dezatela ondorengo telefono zenbakira: 634 45 9110.

SALGAI

■ **Altzariak.** Egoera onean dauden haritzeko hainbat altzari saltzen

ditut. Interesatuek deitu 628 69 88 07 edo 666 6157 66 telefono zenbakietara.

■ **Atikoa Tolosan.** Tolosako Alde Zaharrea 50m2ko atikoa salgai. Egoera onean dago eta oso argitsu da. Igogailua badu. 132.000 euro (22.000.000 pezeta). Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 943 43 00 20.

Nafarroako Euskal Dantzarien topagunea

Leitza » Arratsaldean hasi eta goizaldera arte luzatu zen. Hamar dantza talde baino gehiago izan ziren eta jende ugari bildu zen ikustera.

ENERITZ MAIZ

Nafarroako Euskal Dantzarien Eguna Leitza ospatu zuten atzo. Azkenekoz Leitza duela 24 urte ospatu zuten egun hau. Leitza Aurrera Dantza Taldeak eta Euskal Dantzarien biltzarrak antolatu zuten egun hau. Lehenbizi herriko auzo guztietara zabaldu zen dantzarien festa eta ondoren, guztiak herriko plazan elkartu ziren.

Nafarroako hamar dantza talde baino gehiagok hartu zuten parte bertan: Noain, Berriozar, Iruñea, Barañain, Uhartea, Aoiz... Leitza bertakoak ere ibili ziren batean eta bestean dantzan.

Herriko bostgune ezberdinetan ibili ondoren, dantza ekitaldi na-

gusia plazan egin zuten. 19:00etarako dantza talde guztiak, Leitza-ko plazan elkartu ziren. Bertan, Neskek El Ciego eta mutilek, Cortes dantzatu zuten. Eta behin denak elkartuta eta saioari amaiera emateko, Leitza Ingurutxoa dantzatu zuten. Jaialdiko partehartzaileek, Leitza Ingurutxoa dantzatu ahal izateko, ikastaro bat egin zuten abuztuan.

Nafarroako Euskal Dantzarien Egunari bukaera emateko, guztiak afaria egin zuten. Eta nola ez, afalostean ere, dantzarik ez zen faltatu. Dantzan jarraitzeko, erromeria izan zuten ordu txikiak bitartean. Dantzariez gain, atzokoan, jende ugari bildu zen Leitzaan.



Auzoetan ibili ostean, dantza talde guztiak plazan elkartu ziren. I. TERRADILLOS

Elikagaien XV. Azoka Bereziak harrera bikaina

Villabona » Postuen lehen saria arabarra izan da eta gisatuarena Irrintzi Elkarteak. Antolatzaileak gustura geratu dira.

ERREDAKZIOA

Irrintzi Elkarteak, urtero antolatu du Elikagaien azoka berezia. Aurtengoa, XV. edizioa izan da. Ateak goizeko 09:00etan zabaldu zituen eta bazakaltzeko ordua bitarte jendearen joan etorri handia izan zen bertan.

Bazen zer ikusia. 30 postutik gora izan ziren eta Txermingo

Ikastolaren jolas lekuan. Postu guztietatik buelta egin, zerbait das-tatu edota erosi ostean, asko eta asko, Irrintzi Elkarteak jarritako barraren inguruan bildu ziren. Pintxo bat jenez, tragotxo bat hartu eta kontu kontari egon ziren bertarututakoak.

Postu guztien artean lehiaketa egiten dute. Irrintzi Elkarteak, postu guztien artetik, lehen hiru onenak saritzen ditu. Aurtengoa, lehen postua, Leire Ibarrolaren-tzat izan zen. Arabako Izoria herri-tik etorria zen. Bigarren postua, Errioxako San Vicente del Sonsie-rako, Vinos Ramirezentzat izan zen eta hirugarren sailkatua, herri-

tarra den Dani barazkiak eta frutak postuak lortu zuten.

Antolatzaileak gustura gelditu ziren XV. edizioak eman duenare-kin. Eguraldi onarekin, jende asko egin zuten azokatik

Isats Gisatu Lehiaketa

Azokarekin batera, Elkarteen arteko Isats Gisatuaren lehiaketa egiten dute.

Aurtengoa zazpi elkartek hartu zuten parte eta irabazlea, Irrintzi Elkarteak izan zen. Bigarren postua, Uso-Toki Elkarteak eskuratu zuen eta hirugarren postua berriz, Zumbeltz Elkartearentzat izan zen.



Irrintzi Elkarteak jarri zuen barran, jende asko ibili zen. I. TERRADILLOS

MUNDUAN DAGO ZURE ETORKIZUNA

Matrikula irekia!
Eskolak irailak 15ean hasiko dira!
Hizkuntza desberdinen aukera zabala:
ingelese, euskera, frantsesa, alemaniera, italiara...
Hitano ikastaroak
www.elduaien.com



Produktu ezberdinak eskainiz, postu asko izan ziren. I. TERRADILLOS



Jai giro polita Alkizan, Bedaion eta Zizurkilen

JAIK ■ Eguraldiak lagunduta egun polita igaro zuten atzokoa festak ospatzen ari diren eskualdeko hiru herrietan, hau da, Alkizan, Bedaion eta Zizurkilen. Azken honetan, haurrak jolasean zebiltzan bitartean artzain txakur lehiaketa ikuste-

ko parada izan zen. Arratsaldean, berriz, blusek hartu zuten protagonismoa, euren arteko jokoekin. Bedaion ere umeek gozatu ederra hartu zuten arratsaldean jolasekin, eta gauean, herri afariaren ostean, dantzaldia izan zuten trikiti doi-

nuekin. Alkizan bizikleta lasterketarekin ekin zioten egunari. Arratsaldean herri kirol saio interesgarria izan zen ikusgai, eta giroa alaituz joan zen sagardo dastaketa eta bertolariekin; festak dantzaldiarekin jarraitu zuen gauean. E.M./L.T.

Joxe Gastesi Txintxarri abesbatzaren sortzailea hil da

Alegia ■ 1930etik 1950era bitarteko Alegiako pasadizoak bildu zituen 'Eran otros tiempos' izeneko bilduman.



Joxe Gastesi, 2009an. J. SAIZAR

ERREDAKZIOA

Joxe Gastesi idazlea eta Txintxarri abesbatzaren sortzailea hil zen herenegun, 84 urte zituela. Haren aldeko hileta elizkizuna atzo arratsaldean egin zuten, Alegiako San Joan Batailatzailea parroki elizan, eta jende ugari gerturatu zen bertara.

Joxe Gastesi Iturrioz Mexikon jaio zen 1926. urtean. Zaragozan egin zituen perito ikasketak, CAFen lan egin zuen goi mailako postuetan, ezkondu zenetik Beasainen bizitu zen erretiratu arte, eta azken urteak Donostian eman zituen.

Goierrin guraso elkarte ugari, Alkartasuna lizeoa eta Goierri Lanbide Eskola sortu zituen, Ikas-tolen Elkartearen sorreran ere

parte hartu zuen eta baita Txintxarri abesbatzaren sorreran ere. Abesbatza zuzentzeaz gain, abesbatzari buruzko liburua idatzi zuen, *Txintxarri abesbatza 1960-2000* izenekoa.

Argitaraturiko bakarra hori izan zen arren, baditu beste hainbat idatzi.

Eran otros tiempos izenekoan, esaterako, 1930etik 50era bitarteko Alegiako pasadizo eta pentsamenduak bildu zituen. Erljioa, hezkuntza eta politikari buruz ere idatzi zuen.

ZURE ABONUA, GURE KEMENA

LAGUN ARO GBC
SAR ZAITEZ TALDEAN
Ezagutzeko eta zure abonua
www.lagun-aro.com

LAGUN ARO SAN SEBASTIAN
OPEDUNA BASKET

LAGUN ARO gipuzkoa



Ondo ari da Patxi Caminos

ABALTZISKETA • Atzo 17:00etan ekin zion erronkari Patxi Caminosek. Bere asmoa Iker Karrerak orain urte batzuk egindako marka hobetzea da eta horretarako Txindoki 24 ordutan gutxienez 12 aldiz igo beharko

du. Jende ugari gerturatu zen Txindoki ingurura erronka ikustera eta egunkaria itxi genuenerako ondo ari zen Caminos, baina gaua zuen aurretik oraindik. Gaur 17:00etan bukatuko du hortaz erronka. E.MAIZ



Azaldegi, Uzkudun, Bildarratz eta Etxeberria. A. IMAZ

Aitzol Udal Eskaltegian izena emateko aukera

Tolosa » Eskualdeko herritarrei matrikula egiteko epea irailaren 17an amaituko zaie, ikasturtea 20an hasiko da.

baldin badago ere, ikastaroetan parte hartzeko aukera eskualdeko herritar guztiengana zabaldu nahi izan dute.

Matrikula

2010-2011 ikasturtea irailaren 20an hasiko da. Matrikula egiteko epea aldir, irailaren 17ra arte egongo da zabalik. Euskalduntzeko eta alfabetatzeko eskaintzen du Aitzol Udal Eskaltegiak. Ikasleak aurrez aurreko taldeetan edo autokaskuntzan matrikula daitezke. HABEren mailetako azterketak gaituz gero, matrikulako dirua berreskuratzeko aukera ere izango da.

Informazio gehiago nahi duenak, Euskaltegiara joatea nahikoa izango du. Telefono zerbaki bat ere eskura jarri dute: 943 65 10 06.

ERREDAKZIOA

Tolosako Aitzol Udal Eskaltegiaren euskara ikasteko bide zuzena aukeratu dute aurtengorako. Lelo honekin aurkeztu baituzten herenegun ikasturte berria. Ekitaldian Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, Ainhoa Etxeberria Euskara zinegotzia, Inaki Azaldegia Euskara zerbitzu burua eta Mikel Uzkudun Eskaltegiako zuzendaria egon ziren.

Aitzol Udal Eskaltegiaren egoitza Tolosako Rondila kalean

berria Irudikatu mundua **BERRI**arekin
Zerga bilaketa urte bakoaren hobea honoratzen gaituzten berria

Egin harpidedun eta jaso
ARGAZKI KAMERA HAU OPARI.



Ezaugarriak:

- Kamera digitala, 9 megapixelkoa
- TFT pantaila, 2,4 hazbetekoa
- Irudiaren berretsimen ezin hobea, 16 megapixel artekoa, software interpolazioa erabiltz
- Zoom digitala, vs. argazkiak handitzea
- Mugimenduko JPEG bideo formatua
- Mikrofonoa
- SD memoria txartelak onartzen ditu, baita 8 GBkoak ere

Orain, beste arrazoi bat BERRIaren harpidedun izateko.



Ezaugarriak:
samsung LE 32C450

Telebista 32 hazbeteko pantaila laua du, eta DNI+ irudi prozesadorea, USB 2.0 ataka bat du, HDMI harria eta PC-ko sarriera bat eta eurokonektore bat audio eta bideo konfigurazio guztiekin lotzeko.

Urriaren 15ean,
telebista hau zotz egingo dugu
BERRIaren harpidedunen artean,
Elektraren eskutik.

elektra
www.elektragaia.com

Laburrak

Iturriza Jubilatutako Elkartearen Jokoak

TOLOSA • Iturriza Jubilatutako Elkarteak, beste urteetan bezala, Udazkeneko Jokoak antolatuta ditu. Besteak beste ondorengoak: tutea, punttxoa, dominoa, toka eta musa. Udazkeneko Jokoetan parte hartu nahi dutenek, izena Iturriza Elkarteak eman beharko dute, 10:00etatik 12:00etara. Irailaren 17a izango da horretarako azken eguna.

Pilota edo Dantza eskoletan izen emateko

ANOETA • Ikasturte berria prestatzen hasi dira Anoetako Dantza Eskolan. 2007a baino lehen jaiotako koek orain dute izena emateko aukera, hilak 17a izango da azken eguna. Kiroldegian edo udaletxean egongo da horretarako aukera. Bestalde, Pilota Eskolan izena emateko azken eguna ere 17a da.

Independentistak sarearen bilera asteartean

TOLOSA • Independentziaren olatu berdea martxan jarri da Euskal Herrian uda honetan eta Tolosaldeari orain egokitu zaio «olatu gainera igotzen hastea». Hori dela eta bilera izango da asteartean, hilak 14, Tolosako Kultur Etxean, 20:00etan. Tolosaldeko independentista guztiak gonbidatzen dituzten bilkuran parte hartzera.

Getaria-Tolosa izan da azkarrena

TOLOSA • Getaria-Tolosako neska izan ziren atzo azkarrenak Kontxako Banderako emakumezkoen erlojupeko estropadan 11 minutu eta 09 segundoko denborarekin. Horiek horrela Getaria-Tolosa, Zumai, Galiza eta Bizkaia izango dira gaurko ohorezko txandean ariko direnak. Atzoko denborak ez dituzte hartuko kontuan.

E Elkarrizketa

UNAI AROZENA ▶ Pilotaria

Tolosa » Unai Arozena Tolosan bizi den venezuelarra da; urrian izango den Munduko Euskal Pilota Txapelketan izango da bere herrialdea ordezkatzeko.

MAIER UGARTEMENDIA

Unai Arozena (Caracas, Venezuela, 1974) orain dela zortzi urtetik Tolosan bizi den venezuelarra da. Urrian, bosgarren aldiz bere herrialdea ordezkatzeko du XVI. Munduko Euskal Pilota Txapelketan. Izan ere, betidanik euskal kulturarekin eta kirolarekin zerikusia duen guztiarekiko interes berezia izan du.

Nola iritsi zinen Venezuelatik Tolosara?

Orain dela zortzi edo bederatzita urte etorri nintzen. Nire arreba orain dela hamaika urte etorri zen sukaldaritza ikastera eta jada banoen nora etorria. Gainera, hango egoera ez zen oso ona eta... Beti izan nuen buruan hona etortzeko ideia.

Beraz, zortzi urte daramatzazu Euskal Herrian. Baina, nola eza-gutu zenuen?

Betidanik oporretara etorri izan gara. Nik hamabost urte nituenetik udaro etorri izan naiz. Geroago, hilabeterako edo, esku pilotan entrenatzera ere etortzen nintzen. Hortaz, beti ibili izan naiz joan etorrian. Lehengusuak eta izeba-osa-bak ere baditut hemen... Eta, hasieran arrazoi guzti horienatik hasi nintzen etortzen.

Zure aitona-amonak hemengoak ziren eta Venezuelara joan behar izan zuten. Zergatik? Zein zen beraien egoera?

Gerra Zibilean joan ziren Venezuelara. Nire amona Ondarrukoa da eta nire aitona Orioko. Gero han elkar ezagutu zuten. Izan ere, denak hango Euskal Etxetan elkartzen ziren. Azkenean, nire lagun guztiak ere guraso euskaldunak zituzten, han ez baitzegoen nahasketarik. Batzuetan bai, euskaldunak hangoren batekin, indio-aren batekin edo beltzen batekin, nahasten ziren, baina normalean euskaldunak euskaldunekin elkartzen ziren. Nire kasuan ere, nire amaren gurasoak hemengoak ziren eta baita nire aitarenak ere. Gure lagun taldean denak ginen Unai, Iñaki, Aitor, Jon...

Zu ere oso lotua zaude Euskal Herriarekin eta baita euskal kulturarekin ere, nondik datorzik interes hori?

Txikitatik Caracaseko Euskal Etxean egon izan gara, eguna bertako pilotalekuan ematen genuen. Pilotalekuan jolasten ginen beti futbolean, esku pilotan, zesta puntan... Txistua jotzen edo dantzan ere ikasten genuen.



R. CALVO

«Hau niretzat bosgarren Munduko Euskal Pilota Txapelketa da»

Zu ere euskal dantzetan eta pilotan aritzen zinen bertan, ezta?

Bai, Aldazka dantza taldean hamabost urtez aritu nintzen, baina aparteko zerbait bezala hartzen nuen. Han denak geunden horrelako zerbaitetan sartuta. Denak aritzen ginen esku pilotan, palan, zesta puntan edo dantzan, eta beste batzuk baita txistuko klaseak hartzen ere. Ni neu ere txistuan aritua naiz, baina denbora gutxian! Euskara ere ikasten da bertan, klaseak ematen dituzte eta gutxieneko behintzat ikasten da.

Noiz eta nolatan hasi zinen pilotan?

Nik bi urte nituenetik argazkiak ditut pilotalekuan pilotarekin. Betidanik han jolastu izan gara. Egia esan betidanik egin izan dudana gauza bat da.

Ba al dago Venezuelan pilotarekiko afiziorik? Pilotari asko sortzen al dira bertan?

Bai, badago bai. Baina, pilotan jokatzen genuen taldean, azkenean-ko gutxi ginen. Sei bat edo izango

ginen. Gero, hona etorritakoan konturatzen zara hemen zenbat jende aritzen den pilotan, ehunka dira. Eta, hemen dagoen maila ere beste bat da.

Laster, urriaren batetik hamarre bitarte, Frantziako Pau herrian, XVI. Munduko Euskal Pilota Txapelketa jokatu da eta zu bertan izango zara.

Hau niretzat bosgarren Munduko Txapelketa da. Hamabost urte nituenetik parte hartzen dut bertan. Lehenengo, 94an jokatu nuen

Hendaian, Iparraldean. Eta geroztik, Mexikon bi aldiz parte hartu dut Txapelketan. Iruñean ere izan zen eta oraingoa Pauen. Orain arteko guztiak joan naiz. Oraingoa, nik bi modalitateetan hartuko dut parte, bai banaka eta baita binaka ere, eta horrek partidua asko jokatzea eskatzen du. Oso zorrotza da.

Munduko Txapelketa bat izanda, maila altua egongo da bertan...

Bai, maila oso altua da, baina kontua da herrialde gutxiren artean

banatuta egoten dela. Azkenean batzuek izaten dituzte aukera gehiago. Nere modalitatean, esku-zokoan, alegia, Espainia, Frantzia, Mexiko eta Kuba dira hobereak. Gu batzuetan hor egon izan gara Mexiko eta Kubaren artean. Baina, Espainia eta Frantzia beti

«Txikitatik Caracaseko Euskal Etxean egon izan gara, eguna bertako pilotalekuan ematen genuen»

«Eskuzko modalitatean, Espainia, Frantzia, Mexiko eta Kuba dira hobereak»

«Nire helburua lehenengo lauen artean sartzea da, finalurrekoak jokatu ahal izateko»

beste mutur batean ikusi izan dira, beste maila... gogor batean! Zer nolako prestaketa eskatzen du txapelketa honetarako?

Hemen, askotan, bakarrik aritu naiz prestaketa lanak egiten. Gainera, uda egokitu zait, eta abuztuan trinketeak eta itxi egiten zituzten. Jendea ere kanpoan egon da, oporretan... Horregatik, askotan bakarrik prestaketa egokitu izan zait. Baina, hemengo pilotari-aren batekin ere aritu naiz entrenatzen. Mattinek asko lagundu dit prestaketa, nirekin etortzen baitzen askotan jokatzea.

Hortaz, hemen egiten dituzte prestaketak?

Bai, Irurako trinketean entrenatzen dut normalean.

Hemen izaten diren pilota partidak eta txapelketak ere jarraitzen al dituzu?

Bai, baina egia da han nengoenean arretra handiagoa jartzen nuela. Han beti egoten ginen partiduei begira, emaitzak interneten begiratzeko aritzen ginen, esku pilotako partida eta txapelketa guztiak jarraitzen genituen. Baina, hemen ez dut horrelako jarraitze egiten, agian, gertuago dudalako edo. Hasieran, partiduetara eta joaten nintzen baina orain lasaia bizi-tzen dut.

Azkenik, zein helburu dituzu Munduko Txapelketarako?

Nire helburua lehenengo lauen artean sartzea da, gero finalurreko-tan sartu ahal izateko. Aurrera jarraitu ahal izatea gustatuko litzaidake. Hori oso zaila da, eta are zailago finalera iristea. Izan ere, aurrera jarraitzeko lehenik zure taldean aurrena gelditu behar duzu eta gero beste talde bateko lehenengoaren aurka jokatu behar duzu. Lehia horretan irabazten duenak aurrera jarraitzen du eta beste atzean gelditzen da. Horregatik, finalurrekoetara iristea oso zaila da, zeren kanpoan geratzea oso erraza da.

DOMINAK ERE BADITU BERE CURRÍCULUMEAN

Unai Arozena Munduko Txapelketaz gain, beste hainbat txapelketetan ere parte hartutakoa da. Esate baterako, 1994an Joko Panamerikarretan lortutako emaitzak ere ez dira nolana hikoak. Joko Panamerikarrek Ameriketara egiten diren joko olimpiarrek dira. 1994an, Euskal Pilota erakustaldirako kirola izan zen bertan, baina, jada kirol ofiziala da joko hauetan. Euskal Pilota lehenengo aldiz jokatu zen urtea oso garrantzitsua izan zen Unai Arozenarentzat eta baita Venezuelako selekzioarentzat ere. Bertan zilarrezko hiru domina eta brontzezko bat lortu baitzituzten. Horrelako joko batzuetan euskal pilotan jokatzen zen lehen aldian izan zen hura eta lortutako emaitzak bikainak izan ziren!



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebecka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harripedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak eta Kultur Asteak

■ **Bedaio.** 11:00etan meza nagusia; ondoren hamaiketakoa; 13:00etan XXI. Txirindulari igoera (federatu gabekoentzat); 18:00etan herri kirol jaialdia (harr-jasotzailea: Aimar Irigoien, aiz-kolariak: Larretxea eta Floren Nazabal); ondoren bedaiotarrek Bedaioko Ingurutxo dantzatuko dute; jarraian Xanti-Katxo trikitilariak; 21:00etan afaria (Mondejuak eta ardi gisatua) Artubi Elkartearen trikitilariak alaiturik; 00:00etan jaietara amaiera emateko suziria.

■ **Tolosa.** Extremadurako Astea La Jaran: 13:00etan Arramele parrokiaren meza, Flor de Jara koruarekin; 13:30ean toka eta igel-toka; 14:30ean bazkideen bazkaria; 16:30ean sari banaketa eta 21:00etan ekitaldien amaiera.

■ **Zizurkil.** 11:30ean sardinak eta sagardo dastaketa Urkamendi elkartearen eskutik; 13:00etan Motozerrarekin egurrari formak emanez erakustaldia; 19:00etan herri-tarren dantza eta Melokotoiari agurra; honen aurretik kalejira; 20:00etan bertso saioa plazan (Anjel Mari Peñagarikano, Aitor Mendiluze, Sustrai Kolina, Xabier Silbeira, Iker Zubeldia eta Amaia Agirre; gai-jartzailea: Jon Zaldua); 23:00etan DJ Bull plazan.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Kultur tailerretan matrikulatzeko epea hilaren 24ra arte, Kultur Etxean.

Ospakizunak

■ **Ibarra.** Izaskungo Andre Mariaren jaia ospatzeko meza berezia 11:00etan Izaskungo ermitan, Santa Maria kapera bertan dela.

Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan gaur: 17:00etan *Shrek* eta 19:30ean *Vincere*. Bihar (ikuslearen eguna): 20:30ean, *Vincere*.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

■ **Lekunberri.** Mendia M.I. Aralar kalea, 25. 112.

Bihar

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Gertu ere irudi ederrak



BERASTEGI

Anne Agirrezabalak argazki hau bidali du XII. Hitza Argazki Lehiaketan parte hartzeko: «Abuztuaren Nojan ateratako argazkia da, Play de Ris hondartzan. Bertan ikusi dezakegunez, harkaitz asko daude eta mareak behera egiten duenez gehiago ikusten dira, jendea harkaitz artean ibiltzen da paseatzen eta karramarroak harrapatzen, baita buzeatzen ere. Argi dago ez dagoela urrutira joan beharrik leku apartak ikusteko!». ANNE AGIRREZABALA

TOLOSA

Maider Elorzak argazki hau bidali du: «Aurten gurasoek Harora eraman naute eta txikia naizenez ezin izan dut ez ardorik edan ez igerilekuan bainatu, beraz txingurriak harrapatzen pasatu ditut orduak. Egun ona izan, ta ni, titi jan da lotara nua. adiOOO». MAIDER ELORZA



TOLOSA

Tolosako Javik argazki hau bidali du: «Oraintxe Voith auzo berriko lanetan obrek inguratutako auto bat utzi zuten, ermitaren atzean, hain justu. Handik pasa nintzen eta 'argazki hau irabazlea da' pentsatu nuen. Ona da, ez dakidana da nola ateratu zuten autoa hortik». JAVI